

getxoBerri

/ Nabarmentzekoak

- > Getxon hutsik dauden etxebizitzetako buruzko azterketa egiteko lehenengo urratsak (2. or.)
- > Abian Punta Begoña Galerietako igogailua (2. or.)
- > Espainiako Ultimate Frisbee Txapelketa (4. or.)



Motorrak berotzen San Inazio eta Romoko jaietarako (3. eta 4.or.)

Letren Terrazak. Hilaren 27an, osteguna, eta 28an, ostirala, Andra Mariko Sarri plazan, 19:00etan, eta Algortako Iturgitxi plazan 12:30ean, hurrenez hurren, Ipuin kontaketa.

San Lorenzo azoka. Abuztuaren 10ean, San Nikolas eta Biotz Alai plazetan, 10:00etatik aurrera. 22:00etan, Biotz Alai abesbatzaren kontzertua.

A-
GENDA

Movistar, UCI World Tour kategoriakoa, eta Kontinental mailako bederatzi talde izango dira Getxon Nazioarteko kategoriako 16 talde lehiatuko dira Getxoko 72. Zirkuituan

MoviStar, Armee de Terre, Caja Rural Seguros RGA, Dare Viator Partizan, Sport Vlaanderen Baloise, Delko Marseille Provence KTM, Fortuneo Oscaro, Kuwait Cartucho, Euskadi Basque Country Murias, Manzana Postobon Team, Nippo Vinni Fantini, Burgos BH, Unieuro Trevigiani Hemus 1896, Kuwait Massi eta Team Ukyo taldeek hartuko dute parte datorren astelehenean, uztailak 31, Getxoko 72. Zirkuituan (Ricardo Otxoa 17. Memoriala). Ekimena Punta Galea Txirrindulari Elkarteak antolatzen du Udalarekin ellkarlanean, beste instituzio eta babesle batzuekin batera. Proba 9:30ean hasiko da, eta 170 kilometrokoa izango da Getxo, Berango eta Leioan zehar. Irteera eta helmuga Getxoko epaitegien aurrean izango dira.

Aurten, lasterketaren ohorezko zuzendaria Arsenio González izango da, 1996ko edizioan irabazlea.

Udaltzaingoak zirkulazio neurri bereziak hartuko ditu bai bezperan bai lasterketa egunean (www.puntagalea.com).

Lasterketa osoa, eta zuzeneko irudirekin, ikusi ahal izango da (streaming-en bidez) Udalaren kirol webgunean (www.getxo.eus/kirolberri).



Frogak larunbatean, uztailak 29, izango dira

Hitzordua goi-mailako arraunarekin Getxon lau estropadarekin

Arraunaren elitea Abran izango da berriro ere larunbatean, uztailaren 29an, Getxoko Estropaden XXXIX. Ikurriña (José Antonio Agirre Lehendakariaren XIII. Omenaldia) jokatzeko. Hitzordu laukoitza 10:30ean hasiko da ARC Ligako 2. taldearen estropadarekin, eta, bertan, Getxo Arraun trainerua aterako da. Ondoren, 12:30ean, ABE Ligako bandera jokatu da, beterranoena, eta, bertan, Getxo Arraun trainerua norgehiagokaren lider moduan arituko da. Arratsaldean, 18:00etan, lehiari arituko dira emakumezkoen arrauneko Euskotren Ligako ontzirik onenak. Ondoren, 18:30ean, egunari amaiera emateko, gizonzkoen Eusko Label Ligako proba jokatu da, ACTk antolatua, eta, bertan, Kantauri itsasoko 12 ontzirik onenek hartuko dute parte.

Getxo Arraunek eta Getxo Kirolakek lau estropadak egun berean izateko eduki duten helburua bete da aurten, hau da, baliabideak optimizatzeko eta arraunaren ikuskizunik onena eskaini ahal izateko jardunaldi bakar batean, eta hondartzagaraiaren Ereaga eta kirol-portura doazen herritarrei eragozpen gutxiago sortzeko ere. Ibilgailua ekiditea gomendatzen da.



5 plaza eskaintzen dira bela, arrauna, piraguismo edo urpekaritza klubetako 13 eta 15 urte arteko getxotarrentzat Uretako kirolen nazioarteko campusa abuztuan

Getxon uretako kirolen nazioarteko campusa egingo da abuztuaren 21etik 24ra bitartean. Ekimena Erasmus+ Wave on Wave (WoW) Europako programan sartzen da, eta Europar Batasunak batera finantzatzen du. Bertan, Getxok parte hartuko du honako hauekin batera: Pesaro (Italia), Nancy (Frantzia), Adel (Eslovenia), Dubrovnik (Kroazia) eta Gdynia (Polonia).

Campusa 13 eta 15 urte arteko 30 gazteentzat da, hots, parte hartzen duten herrietako bela, arrauna, piraguismoa edo urpekaritza klubetakoak direnentzat. Getxori dagokionean, 5 plaza eskaintzen dira, eta joan-etorri, egoitza, mantenu eta parte-hartzearen inguruko gastu guztiak ordainduta daude. Aipatu kirolen klubarekin lotura izateaz gain, aintzat hartuko da



ingelesaren oinarritako maila izatea eta esperientzia hori beste herrialde batzuetako gazteekin partekatze motibazio altua izatea ere.

Hautagaiak uztailaren 31 baino lehen aurkeztu behar dira klubaren edo Getxo Kirolaren bitartez (oinarriak webgunean) Informazio gehiago kalegria@getxo.eus posta elektronikoaren bidez.



UZTAILAK 27 OSTEGUNA

Letren Terrazak-Udako liburategiak. Andra Mariko Sarri plazan 19:00etan, Ipuin kontaketa.

UZTAILAK 28 OSTIRALA

Letren Terrazak-Udako liburategiak. Algortako Iturgitxi plazan 12:30ean, Ipuin kontaketa.

Saninazioak. 18:00etan, koadrilen jaitziera San Nikolasetik (derrigorrezko 1go proba koadrilentzat); 19:30ean, pregoia eta txupinazoa, San Nikolasen; 20:00etan, XVI. Jota eta Arin-arin txapelketa, Tellagorri; 21:30ean, kontzertuak Tellagorri Erasoka eta Gatz taldeekin (tabernen eskutik); 22:00etan, suzko zezena Telletxen; 22:30ean, kontzertuak San Nikolasen, Txapito Guzman, Cecilia Payne eta Skakeitan taldeekin, eta erromeria tradizionala Kasinon.

UZTAILAK 29 LARUNBATA

Saninazioak. Umeen eta gazteen Eguna. Eguneroko zirkua herriko plazetan; 10:30ean, KAE 2 ligako Getxoko Estropada, Portu Zaharrean; 11:00etan, puzgarriak eta Saharar eta Palestinar herriarekin elkartasun ekitaldiak Biotz Alai plazan; "Zurumurrurik ez" espazioa, San Nikolasen, eta Esku-pilota txapelketaren finalak Batzokian; 12:00etan, pintxo-eskalada desafio (derrigorrezko 2.proba) San Nikolasen; 12:30ean, Getxoko beteranoen XIV. Estropada, Portu Zaharrean; 13:00etan, bertso saioa Kasinon; 15:00etan, gazte bazkaria, San Nikolas plazan, eta Kantu-bazkari Azebarrin; 17:00, 18:00, 19:00 eta 20:00etan, Futbito txapelketaren final-laurdenak, Batzokian; 18:00etan, Euskotren ligako Getxoko IX. Estropada eta 18:30ean, KAE 1 ligako Getxoko 39. Estropada, Portu Zaharrean; 18:30ean, umeen jaitziera, San Nikolas plazatik, eta nagusien luntxa Zabalan; 19:00etan, buruhandiak; 19:30ean, nagusien dantzaldia Zabala; 21:00etan, kontzertuak: Screamers & Sinners, Tellagorri; 22:00h., Suzko zezena Telletxen; DJa, Biotz Alai plazan; kontzertuak Kasinon Atomic Spliff taldearekin, eta San Nikolasen, Nork Zer, Garasika eta 2Zio taldeen eskutik.

Egitarau osoa: <http://www.getxo.eus/eu/servicios/avisos/311>

UZTAILAK 30 IGANDEA

Saninazioak. Koadrilen Eguna + Txipiroiak. 08:30ean, Txipiroi txapelketaren izen ematea, Biotz Alai; 12:00etan, rally desafio (derrigorrezko 3. proba); 13:00etan, bertso-saioa Kasinon eta txipiroi txapelketaren lapikoen aurkezpena Biotz Alai; 13:30ean, bitsa festa, Telletxen; 15:00etan, koadrila bazkaria San Nikolasen (derrigorrezko 4. proba); 17:30ean, txipiroi txapelketaren sari banaketa Biotz Alai, eta koadrilen abesti erakustaldia (taldeentzat derrigorrezko 5. proba) San Nikolasen; 18:00etan, Kantu Kiroi Moda Krosa; 20:00etan, jaitziera tradizionala Cuatro Caminosetik Ereagako barraketaraino, larraindantza eta suzko zezena (taldeentzat derrigorrezko 6. proba), eta Sound System Gaua, Telletxen; 20:15ean, organo eta kantu kontzertua, San Inazio elizan; 20:30ean, kontzertuak Tellagorri: Unidad Alavesa eta Sumision City Blues; 22:00etan, kontzertua Euskatalites taldearekin, Kasinon, eta 23:00etan, kontzertuak San Nikolasen: Travelling Brothers, Moonshakers y Guida.

Romoko jaiak. Goizez txupinazo aurreko ekitaldiak: nekazaritza azoka, grafiteroak, pintos lehiaketa...

Algortako eta Romoko egitarau osoa: <http://www.getxo.eus/eu/servicios/avisos/311>

UZTAILAK 31 ASTELEHENA

Saninazioak. San Inazio Eguna. 9:30ean, 72. Getxoko Zirkuitoa; 11:00etan umeentzako puzgarriak eta tailerrak Biotz Alai plazan; 12:00etan, dantzari taldeen kalejira herrian zehar eta meza nagusia San Inazio elizan; 13:00etan, umeentzako ur gerra Biotz Alai eta bertsolariak Kasinon; 15:00etan, bertso maratona (www.albe.eus); 19:00 eta 20:00etan, Futbito txapelketaren finalak; 17:30ean, Herri Kiroiak Telletxen; 19:30ean, bertso maratona (poteo); 20:30ean, play-back (derrigorrezko 7. proba) San Nikolasen, eta trikopotea, Tellagorri; 22:00etan, suzko

zezena Telletxen, Kontzertuak Kasinon, eta Koadrila txapelketaren sari banaketa San Nikolasen (ostean, Bidean taldearekin erromeria). 23:00etan, su artifizialak Ereagan (Pablo piroteknia).

Egitarau osoa: <http://www.getxo.eus/eu/servicios/avisos/311>

ABUZTUAK 1 ASTEARTEA

Romoko jaiak. Brindis Eguna. Txupinazo aurreko ekitaldiak: 15:00etan, Bazkarri herrikoia Etorikinen Plataformaren eskutik; 19:30ean, goitibeheren kalejira eta 21:00h., goitibeheren igoera; 23:30h., erromeria Dolores Ibarruri plazan.

Egitarau osoa: <http://www.getxo.eus/eu/servicios/avisos/311>

ABUZTUAK 2 ASTEAZKENA

Romoko jaiak. Txupinaren Eguna. Txikigunea, goizez eta arratsaldez Geltokia plazan; 13:00etan, plater irekiaren aurkezpena, Cervantesen; 16:30ean, koadrilen arteko olinpiada Cervantesen; 18:00etan, jai batzordeen homenaldia txosnagunean; 18:30ean, buruhandiak; 19:30ean, pregoia eta txupinazoa Kolas Plazan eta kalejira; 20:15ean, dantzak txosnetan eta 21:30ean, bertsolariak; 21:00etan, kontzertuak Kalamua kalean, tabernen eskutik; 22:00etan, suzko zezena, antzinako barreretan, eta transformismoa: Las Fellini, Ganetan; 23:30ean, diskofesta txosnetan.

Egitarau osoa: <http://www.getxo.eus/eu/servicios/avisos/311>

ABUZTUAK 3 OSTEGUNA

Romoko Jaiak. Sonbreru Eguna. Txikigunea, goizez eta arratsaldez Geltokia plazan; 15:00etan, preso eta iheslari politikoen aldeko bazkaria; 17:00-19:00, play-backen CDa ematea, Ganetan; 19:30ean, Herri Krosa, Ganetan; 20:00etan, harpa kontzertua elizan; ekitaldi batzuk tabernen eskutik eta kontzertuak, 20:30etatik aurrera, Gobelondon, Santa Eugenia eta Kalamua kaleetan; 21:00etan, bertsolariak txosnetan eta Show Gaua, Dolores Ibarrurir; 21:15ean, dantzak eta 22:30ean, kontzertuak: Cecilina Payne + Sociedad Alkoholika, txosnagunean.

Egitarau osoa: <http://www.getxo.eus/eu/servicios/avisos/311>

ABUZTUAK 4 OSTIRALA

Romoko Jaiak. Koadrila Eguna. Txikigunea, goizez eta arratsaldez Geltokia plazan; 12:00etan, txistulariak eta erretiratuen bazkaria; 13:30ean, Muztio rallya txosnagunetik; 17:00etan, Poteo rallya Gobelaurreko errotondan; 18:30ean, txikarrikoa Ganetan; 19:00etan, Herri Kiroiak eta txala dastaketa, Maiatzaren Bata, taloak Gobelondon eta pintxo morunoak txosnagunean; panzetadak eta zenbait kontzertu 20:30etik aurrera Amaioan, Gobelondon, Kalamuan eta Aurrezki Kutxa kaleetan, tabernen eskutik; 22:00etan, play-back D.Ibarrurir; 22:30ean Kontzertuak: Huntza + Joxe Replay txosnetan.

Egitarau osoa: <http://www.getxo.eus/eu/servicios/avisos/311>

ABUZTUAK 5 LARUNBATA

Romoko Jaiak. Euskal Eguna. 9:00-11:00, Putxeren lehiaketa Ganetan; 10:30ean eta txapelketa 14:00etan; 12:00etan, Motor klasikoan kontzentrazioa eta Auto klasikoan kontzentrazioa; 12:00etan, trikitilariak; 13:00etan, aerobic txosnetan; 15:00etan, Etxe Merke Eguna; 16:00etan, mus txapelketa, Branka tabernan; 17:30ean, boxeo D. Ibarrurir; 18:00etan, txosnetan arteko ur-guda; 18:30ean, ezusteko proba, Gobelondon; 19:00etan, Herri Kiroiak Maiatzaren bata kalean; 20:30ean, galako dantzaldia, Ganeta; 21:00etan, Tekno Gaua, D. Ibarrurir; 21:30ean, Ska Reggae Jaialdia txosnagunean; 22:00etan, suzko zezena, antzinako barreretan; 23:00etan, DJ Ganetan eta 00:00etan, manifestazio txosnagunetik. Zenbait ekitaldi tabernen eskutik eta kontzertuak, 20:30etatik aurrera, Gobelondon, Amaioan, Kresalxu eta Aurrezki Kutxa kaleetan.

Egitarau osoa: <http://www.getxo.eus/eu/servicios/avisos/311>

ABUZTUAK 6 IGANDEA

Romoko Jaiak. Tortilla Eguna. 07:00-07:30, tanga eta iturri lasterketa, S. Eugenia; 11:00etan, Zurumurrurik ez txokoa, txosnetan; 12:00etan, tortillen izen ematea txosnagunean; 14:30ean, dantzak eta 18:30ean, Los Cinco Bilbainos txosnetan; 19:00etan, sardinada eta buruhandiak; 21:00etan, sari banaketa; 23:30ean, pobre de mi; 23:55h., azken traka Santa Eugenia; 23:59h., afaria eta play-back-aren errepikapena, txosnetan.

Egitarau osoa: <http://www.getxo.eus/eu/servicios/avisos/311>


Getxon hutsik dauden etxebizitzetarako buruzko azterketa egiteko lehenengo urratsak

Getxon hutsik dauden etxebizitzetarako diagnostikoa egiteko asmoz, Udaleko Gobernu Batzarrak kontsultategi bat kontratatuzko espedientea hasia onetsi du, berari adjudikatuzko lan hori. Ikerketa hori gobernu taldeak (EAJ/PNV eta PSE-EE) eta EH-Bilduk 2016an sinatu zuten aurrekontu-hitzarmenetik dator. Gainera, osoko bilkurak, orain dela hilabete batzuk onetsi zuen 70.000 euroko kreditu gehigarria aipatutako alderdien eta Ciudadanosen aldeko botoekin eta PP eta Guken aurkakoeekin, Ge-

txon hutsik dauden etxebizitzetarako buruzko azterketa egite aldera. Lan horren bitartez, ezagutu nahi da zein den udalerrian hutsik dauden etxebizitzetarako benetako egoera eta zer ezaugarri dauzkaten, errolda bat sortzeko (zenbakia, kokapena etab. adierazita). Halaber, informazioa egunean mantentzeko parametroak ezarri nahi dira, balizko agertoki eta jarduketak hipotesiak diseinatzeko. Horretaz gain, azterketak helburu du identifikatzea zein neurri hartu daitezkeen hutsik dauden etxebizitzak mobilizatzen.

Azterketan, besteak beste, etxebizitzetarako egungo eta benetako egoerari buruzko mapa edo plano bat eta material grafikoa sortuko dira (kokapena adierazita).

Udaleko Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitzetarako Arloko zinegotziak, Joseba Arregik, honako hau azpimarratu du: "Diagnostiko horri esker, hutsik dauden etxebizitzak erabiltzeko politikak eta estrategiak diseinatu ahal izango ditugu, benetako datuetatik abiatuta eta informazio kualitatibo oso garrantzitsua eskura izanda".



Abian Punta Begoña Galerietako igogailua

Punta Begoñako Galerietako igogailu panoramikoa abian jarri da eta horrekin eroso eta segundo gutxi batzuetan gairitu ditzakete bisitariak orain arte igo behar zituzten lau solairuak. Ondorioz, bisitariak errazago iritsiko dira galerietara. Igogailua begiratokia ere da, atzeko partea panoramikoa delako, eraikina bera eta hondartzako gune batzuk ikus baitaitezke. Igogailuak hiru geldialdi ditu, 7 lagun eta 535 kilogramo hartzeko gaitasuna du eta altzairu herdoilgaitzez eraikita dago. Obraren kostua 43.435€koa izan da.

Ikasleen hazkundearen prebentzio egitarauetan

Udalak menpekotasunak prebenitzeko antolatutako egitarauetan, 2016/2017ko ikasturtean parte hartu duten ikasleen kopurua hazi egin da nabarmen, aurtengoan Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzetako, eta Batxilergoko 6.025ek esku hartu dutelako ekimenen batean, eta aurrekoan 4.600 ikaslek. Udalerriko 14 zentro publikoetako eta pribatutako (13 aurreko ikastur-

tean) haurrek eta gaztek parte hartu dute programa orokorretan eta geletako tailerretan, ahalmen pertsonal positiboak (gestio emozionala, baloreak...) bereganatzeko, substantzien erabilpen ezegokirako arriskuak murrizteko eta baita teknologia berrien erabilpen egokia sustatzeko ere. Inplikaturako irakasleen kopurua 285 izatetik 296ra pasa da.



Balkoiak eta leihoak apaintzeko IV. Lehiaketa

Mercedes Sánchez Garcíarentzat izan zen Balkoiak eta Leihoak apaintzeko Udalak, Aste Berdearen egitarauaren barruan antolatutako IV. Lehiaketaren lehenengo saria (bere senarrak jaso zuena), Algortako Udaberri kaleko 2 zenbakiko terrazagatik. Bigarren saria Iranzu Arondo Olaguerentzat (argazkian eskuinean) izan zen, Algortako etorbideko 56 zenbakian apaintutako balkoiagatik. Lehiaketan 15 pertsonak hartu zuten parte, eta José Luis Landak, Ingurune zinegotziak 250€ko eta 150€ko balioko txartelak eman zizkien lehen eta bigarren sailkatuari, hurrenez hurren, Getxoko lore-mintegi batean kontsumitzeko, eta baita egiaztagiri bana ere.

LABURRAK

Gobelaurreko lokalak erabiltzeko eskaerak.

Irairearen 11ra arte zabalik egongo da Udalaren Gobelaurre Boluntariora Zentroko lokalak doako erabilpena lortu ahal izateko eskaerak aurkezteko epea. Udal Gizarte Zerbitzuetako arloan lan egiten duten elkarteek zuzenduta dago Zentroa eta egoitza gisa eta komuneko tokiak aldi baterako jardueretarako erabiltzeko izango da. Noizbehinkako jardueretarako guneak erabileraren ematea ez da deialdi honetan aurreikusten, hori urte osoan zehar eska baitaitezke, eta bere ematea libre dagoen tokia eta ordutegiaren arabera izango da. Izaera juridiko propioarekin, etekin asmorik gabeko elkarrekin eskatu ahal izango dute tokien erabilera, Getxoko Udalean eta/edo Eusko Jaurlaritzan erregistratuta baldin badaude. Eskaerak HABetan, Gizarte Zerbitzuek Algortan (Urgull kalean, z/g) duten egoitzan, edo legeak aurreikusitako tokietan aurkeztu ahal izango dira.

36.000€ko diru-laguntza ATFAL elkartearentzat.

Udalak Sahararen aldeko ATFAL elkarteari 36.000 euroko diru-laguntza ematea onartu du, hiru jardueretarako. Lehenengo familia getxotarrekin uda ematera saharar haurrak ekartzen dituen *Oporrak Bakean* ekimenera zuzentzeko, bigarrenez, Argeliako Tindoufen dauden Saharako populazio errefuxiatuaren aldeko giza ekintzako proiektu baterako, eta hirugarrenez, urteroko karabana solidarioarako.

SolidaridUP proiektuari buruzko bideo bat sarituta.

Zabalketa GKEak sustatutako eta Udalak diruz lagundutako SolidaridUP proiektuari buruzko bideoak tokiko ekimenei buruzko SOS tenibles lehiaketaren bigarren saria lortu du. UNESCO Etxeak, Garapeneko Lankidetzako Euskal Agentziaren laguntzarekin, antolatutako lehiaketak Garapen Iraunkorrerako Munduko 2030 Agenda lortzen tokitik laguntzen duten ekimenak saritzen ditu.

Bideoa: <https://www.youtube.com/watch?v=Du0mF9pSy94&t=2s>



- Neska, eskarmentuarekin, lan bila dabil, umeak ikastetxera eramateko edo arratsalde/gauez zaintzeko. Tel.:678 359 625

- Salgai altzairuak tokiz aldatzeagatik. Egoera onean. Tel.:678 359 625

Norberaren iragarriak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukien egiazkotasunaren erantzule izango.

Zapien salmentarekin ateratzen den etekina "La Cuadri del Hospi" elkarteari emango zaio.

Chrysallis elkarteak txupinazoa jaurtiko du eta TMS koadrilak pregoia irakurriko du San Inazioko jaietan

Dena dago prest datorren ostiralean, uztailak 28, San Inazioko jaiak hasteko. Pregoa TMS koadrilak irakurriko du, iazko koadrilen txapelketako irabazlea. Txupinazoa, berriz, Chrysallis Euskal Herriko adingabeko transexualen familien elkarteak jaurtiko du, 19:30ean, San Nikolas plazan.

Jai-egitaraua aurreko urtekoaren oso antzekoa da, eta adin guztietarako ekintzak proposatzen ditu.

Jai Batzordeak azpimarratu du koadrilen inplikazioa eta motibazioa gero eta handiagoa dela. Lehiaketan izena ematen dutenek guztira zazpi proba gainditu beharko dituzte: lehenbizikoa ostiralean, hilak 28, izango da, 18:00etan, San Nikolasetik egiten den jai-tsierarekin. Ondoren, pintxo-eskalada desafioa, rally-desafioa, kuadrillen bazkaria, abestea, jai-tsiera tradizionala, eta play-backaren emanaldia egongo dira.

Horrez gain, oraingo honetan, zapiak salduz biltzen den dirua *La Cuadri del Hospi* elkarteari emango zaio: haur minbizia humanizatu, gizarteratu eta ikertzeko eta hezur-muina ematea hedatzeko gura-so elkarteak.

Tradizioa duten hitzorduak

Jaiaren egitarauan ekitaldi tradizionalak azpimarratu behar ditugu: *Cuatro Caminos* bidegurutzetik Ereagako barraketarainoko jai-tsiera eta zezensuzkoa igandean, hilak 30, 20:00etan, eta egun berean egingo den txipiroi lehiaketa, Biotz Alai plazan; Getxoko Txirrindularitzako 72. Zirkuitua hilaren 31n, San Inazio egunean, 9:30ean, Foru kaletik abiatuta; Zutik-Eneko Caballero Futbol Txapelketa; eta bertolariak (Kasinoko ohiko hitzorduez gain, *Bertso Maratoia* izango dugu uztailaren 31n, 15:00etan, Jon Maia eta Igor Elortzarekin (www.albe.eus), eta gero poteoa auzoan zehar).

Bestalde, estropada zaleek larunbatean, hilak 29, zenbait proba ikusi ahaliko dituzte Portu Zaharrea (ikusita azala).

Gainera, ezin aipatu gabe utzi elkartasunezko ekitaldiak Saharako eta Palestinako herriekin, Zurrumurruren aurkako espazioa -29an-, umeen jarduerak, adinekoen dantzaldiak Zabalan, herri kirolak eta euskal dantzak.

Su artifizialak eta barrakak

San Inazio egunean, uztailak 31, Asturiaseko Piroteknia Pablo etxeak su artifizialak botako ditu, 23:00etan. Horregatik, Ereagako hondartzako sarrera 22:00etatik aurrera itxiko da oinezkoentzat eta ibilgailuentzat, Kirol Portuko biribilgunearen eta Txomintxuko sarbideko biribilgunearen artean. Biribilgune horien arteko aparkalekuak ere kendu egingo dira uztailaren 31n, egun osoan zehar, su artifizialen segurtasun



Macarni, jaietako kartel irabazlea, Adriana Pérez Conesak eginda

sun zona baita. Erabat debekatuta egongo da bertan aparkatzea.

Aurten, Ereagako barrakak uztailaren 28tik abuztuaren 6ra arte egongo dira martxan. Abuztuaren 3an merkeago egongo dira: euro batean.

Kontzertuak

San Nikolas plazako kontzertuetan Travelling Brothers Leioako taldea izango dugu gurekin. Talde honek, zenbait sari irabazi berri dituenak, igandean, hilak 30, joko du, 23:00etan, Moonshakers eta Giu-



da-rekin batera. Plaza berean Txapito Guzman, Cecilia Payne, Skakeitan, Nork Zer, Garrasika eta 2Zio arituko dira.

Casino eta Tellagorri inguruetako taberneak ere zenbait talde proposatuko dituzte, besteak beste, Erasoka, Gatz, Screamers & Sinners, Atomic Spliff, Unidad Alavesa, Sumision City Blues eta Euskatalites.

Musika klasikoa ere ez da faltako. San Inazioko parrokiak ohiko kontzertua antolatuko du igandean, hilak 30, 20:15ean. Organo eta kantu errezitaldia eskainiko du zaindariaren ohorez.

XXII. Herri Krosa

Sekula kale egiten ez duen eta belaunaldi guztiak erakartzen dituen ekintza "Kantxa Kirol Moda" herri krosa da. Igandean, hilak 30, egingo da, 18:00etan. Hainbat opari izango dira.

Egitarau osoa, agendan eta <http://www.getxo.eus/etx/servicios/avisos/311> webgunean.

Malakate taldea, Paellen Lehiaketaren irabazlea

Malakate taldea izan zen pasa den igandean, uztailak 23, Aixerroten ospatutako Paellen Nazioarteko Txapelketaren irabazlea. Udaltzaingoko iturrien arabera, 25.000 bat pertsona elkartu ziren jaietan eta 150 paella baino gehiago aurkeztu ziren Ixtas Argia elkarteak urtero antolatzen duen lehiaketara.

Jardunaldiak amaiera iluna izan zuen, istripu batek maila desberdineko erredurak eragin baitzizkien bost emakumeri, horietatik lau Gurutzetako erietxera eraman behar izan zirelarik. Imanol Landa Alkateak gertaeratik bere atsekabea agertu zuen eta zauritutakoak lehenbait lehen sendatzea desiratu zuen.

Ertzaintza ezbeharra ikertzen ari da. Badirudi, lehiaketako parte hartzaile bat zerbait sukaldatze aldera sua pizteko likido sukoi bat bota zuzenean gertatu zela istripua.



Pregoa eta txupinazoa abuztuaren 2an, 19:30ean, izango dira Kolas plazan

Romoko jai batzordeak bere 50.urteurrena ospatuko du

Jai batzordeak botako du aurten Romoko jaiak iragarriko dituen txupinazoa, datorren asteazkenean, abuztuak 2, 19:30ean, Kolas plazan. Horrekin hasiko dira era ofizialean Romoko jaiak, aurreko egunotan ere hainbat ekitaldi izango diren arren, hau da, igandean, uztailak 30, (Nekazarien Eguna) eta asteartean, abuztuak 1, (Brindis Eguna). Azken egun horretan koadrilen arteko lehenengo froga izango da, hain zuzen ere, goitiberak, (19:30ean kalejira egingo da *Soplador*, Haiztazailearen biribilgunearen eta txistulariaren aldaparen artean, eta 21:00etan "igoera" egingo da txistulariaren aldatatik).

Aurten jaietan batzordearen 50. urteurrena ospatuko da, hainbat jarduerarekin, horien artean, urte hauetan guztietan kide izandakoei omenaldiarekin, asteazkenean, abuztuak 2, 18:00etan, txosnen gunean.

Koadrilen lehiaketa

Aipatutakoaz gain, koadrilek aurreikusitako eta errotutako beste froga batzuetan ere parte hartu beharko dute, esate baterako, plater-irekia (aukera irekiko plater bat egitea) eta olinpiada, asteazkenean, abuztuak 2, 14:30ean eta 16:30ean, hurrenez hurren, Cervantes plazan; 50 Poteo Rallya, Gobelaurreko biribilguneatik ostiralean, hilaren 4an, 17:00etan edo Play-back lehiaketa, ostiralean ere, 22:00etan, Dolores Ibarruri plazan. Larunbatean, abuztuaren 5ean, 18:30ean, ustekabeko froga izango da Gobelondo kalean.

Kontzertuak

Kontzertuen artean, azpimarratu behar dira Show Gaua, ostegunean, hilak 3, 21:00etan D.Ibarruri plazan, eta Cecilia Payne eta Sociedad Alkoholikaren kontzertua, 22:30ean, txosnen gunean bertan. Ostiralean, hilak 4, 22:30ean, gune horretan Huntzaren eta Joxe Replaren kontzertua ere izango da. Urteroko beste bi hitzordu dira Tekno Gaua larunbatean, abuztuak 5, 21:00etan, Dolores Ibarruri plazan eta XX.Ska Reggae Jaialdia, ordu erdi geroago, txosnetan. Tabernen eskutik beste hainbat kontzertu izango dira, 20:30ean, Amaioa, Kresaltxu, Kalamua, Aurrezki Kutxa eta Gobelondo kaleetan. Musika klasikoak ere bere tokia izango du jaietan, harpa errezitaldia izango baita



Josu Benito, egitarauaren liburuaren azalaren irabazlea

abuztuaren 3an, ostegunean, 20:00etan hasita. Beste urteroko bat ere izaten da *Los Cinco Bilbainos* taldearen emanaldia, igandean, hilak 6, 18:30etik aurrera, txosnen gunean.

Beste jarduera batzuk

Txikienek Txikigunearekin gozatu ahal izango dute, oraingoan Geltokia plazan, abuztuaren 2an, 3an, 4an eta 5ean; eta baita ostiralean, abuztuak 4, 13:30ean Muztio Rallyarekin, eta abuz-



Arkaitz Tato, banderaren diseinuaren irabazlea

tuaren 2an buruhandiek ere.

Programako gastronomia-ekitaldi tradizionalenak hauek dira: Putxera lehiaketa Ganeta plazan, larunbatean, hilaren 5ean, eta tortilla lehiaketa txosnen gunean, igandean, hilaren 6an.

Era berean, Romon errotuta dauden beste ekitaldi batzuk ere bereizten dira, hala nola Las Felliniren transformismoa, hilaren 2an, 22:00etan, Ganeta plazan; XII. Herri Krosa, Ganetan bertan hurrengo egunean; bertsolariak; Herri Kirolak, Euskal dantzak, txapelketak, txorizo jana, talo, hirugiharra.... tabernen eskutik.

Suzko zezena antzinako langun guneetik irtengo da, hilaren 2an eta 5ean, 22:00etan.

Aldarrikapen politikorako tartea ere izango da: Egitarau osoa: <http://www.getxo.eus/eu/servicios/avisos/311>



Samuel Goiri, kamisetaren eta zapiaren logoaren irabazlea



Espainiako Ultimate Frisbee Txapelketa

Fadurako kiroldegian egingo da uztailaren 29an eta 30ean Espainiako *Ultimate Frisbee* Txapelketa. Hamabost talde inguru gerturatuko dira Getxora eta Fadurako Kirolarien Egoitzan hartuko dute ostatu, Diskolari klubak antolatuta eta 200 bat parte-hartzaile bilduko dituen txapelketan lehiatzeko. Sarrera doakoa izango da.

Txapelketa belarrezko lau zelaitan jokatu da aldi berean. Aurretiazko txandak larunbatean izango dira eta azken fasea igande goizean.

Ultimate Frisbee izenekoa zazpi kidek osaturiko bi talde mistoren arteko kirol modalitate lehia da, 100 metro luze eta 37 metro zabaleko zelaietan jolastu dena. Taldeen helburua frisbeea elkarren artean pasatzea da, aurkako taldeko inork beratu atzeman gabe, aldi berean aurkariaren zelaira hurbilduz, non paseen bukaerak puntuak gehitzea ahalbidetzen duen. Topaketek 90 minutuko iraupena dute.

28 domina Getxo IWrentzat

Getxo Igeriketa Waterpolo taldeak 28 domina eskuratu ditu senior-junior mailako Euskadiko Txapelketan. Taldekakoaren garaipena eskuratu zuten eta hurrengo 12 urrezko domina: David Juz (50 eta 100m. tximeleta), M^a Casillas (50m. bizkar), Naia Ibarrondo (100m. tximeleta), Ane Ibarrondo (50m. libre eta tximeleta), Magdalena Musons (100m. libre eta emakumezkoen errelebo-proban (4x50 eta 4x100m. libre eta estilo). Zilarrezko 10 domina ere eskuratu zituzten getxotarrek: Ane Ibarrondo (100m. libre), Mikel Deba (200m. tximeleta), María Casillas (100 metro bizkar), Itxaso Alonso (1500 eta 800m.), emakumezkoen errelebo-proban (4x200 m. libre); eta gizonezkoen mailan (4x100 eta 4x200m. libre eta 4x50 eta 4x100m. estilo). Azkenik, sei izan ziren brontzezkoak: Beñat Oyarzabal (200m. bular), Yoel Pampín (200m. tximeleta), Magdalena Mussons (50m. libre, 50m. tximeleta eta 200m. libre); eta Ane Ibarrondo (100m. tximeleta).

Pedro Merchán, estatukoarekin Belgikara

Pedro Merchán Sáenz, Getxo Arrauneko arraunlariak parte hartuko du uztailaren 28tik 30era Belgikako Hazewinkel herrian Gazteen Lehiaketan. Gaztea 8+ ontzian joango da, Santiagotarrak klubeko Osert González, Irungo arraunlariarekin.

Bestalde, Alex Regueiro, Getxoko klubekoa ere, bigarren tokian sailkatu zen Munduko Txapelketan, 23 azpiko kategorian (4x modalitatean), pasaden asteburuan Bulgariako Plovdiven. Hori B finalean bigarren geratu zen 2:56tara Alemaniatik, horrek 6:02:02 denborarekin irabazi baitzuen, eta ondorioz munduko zortzigarren geratu zen. Alex (iaz Udalak Getxo Sasoi Sasoiaren saritutakoa) Santiagotarrak taldeko Ander Legazkuerekin batera aritu zen.

Bi arraunlari getxotarrek selekzioarekin joateko txartela pasa den ekainean lortu zuten estatuko txapelketan.